



# Partitiboa, hizpide.

Udara arte ez dugu berriro  
oporrik izango.





## GOGOAN IZAN BEHARREKOA

- Absolutiboaren ordez (NOR kasuaren ordez) erabiltzen da zenbait perpaus motatan (gerora izango ditugu aztergai):
  - Ez dira ikasle**ak** etorri.
  - Ez da ikasler**rik** etorri.<sup>1</sup>
  
- Gainerako atzizkiekin, egitura hauetako bat baliatzen da:
  - bat ere: ikasle **batek ere** ez ditu egin ariketak.
  - ezein: aipu hori ez duzu **ezein** liburutan aurkituko.
  - inolako: ez dio **inolako** galderari erantzun.
  - inongo: **inongo** pertsonak, talde**k** edo erakunde**k** ezin du horren kopiarik egin.
  
- Zer esanik ez, partitiboarekin ere erabil daitezke egitura horiek:
  - Sekzioan ez da **inolako** aldaketar**rik** egin behar.<sup>2</sup>

<sup>1</sup> Baina gogoratu: *Ez dira ikasleak etorri ≠ Ez da ikaslerik etorri.*

<sup>2</sup> EIMArean [Morfosintaxia](#) liburuan, ezeinekin partitiboa ez erabiltzea gomendatzen da (52. orrialdea).



## GOGOAN IZAN BEHARREKOA

-Partitiboari dagokion aditz-komunztadura singularrean gauzatzen da:

- Gai horri buruz ez **dugu** liburur**ik** aurkitu

\*Gai horri buruz ez **ditugu** liburur**ik** aurkitu.

- Erabaki hori dela kausa ez **da** herritar**rik** kaltetuko.

\*Ez **dira** herritar**rik** kaltetuko.

- Finantzaketa emango **zion** hartzekodun**ik** gabe geratu zen Ekuador.

\*Finantzaketa emango **zioten** hartzekodun**ik** gabe geratu zen Ekuador.



## GOGOAN IZAN BEHARREKOA

-Lau perpaus motatan erabiltzen da, erreferentea zehaztugabea, generikoa<sup>1</sup> denean:

- Ezezko perpausetan
- Galde-perpausetan
- Baldintzazko perpausetan
- Baiezko perpausetan

<sup>1</sup> Ez ditu liburuak ekarri perpausean, liburu jakin batzuez ari gara; Ez du libururik ekarri perpausean, ostera, ez.



## GOGOAN IZAN BEHARREKOA

-Partitiboa ezezko perpausetan:

- Ez dut idatzi gomendiozko gutunik.  
(≠ Ez ditut idatzi gomendiozko gutunak.)
- Ez zen apaizik joan hiletara.
- Ez dugu lekurik izan autoan, hain da txikia.
- Aspaldian ez dugu afaririk egin.
- Oskarbi zegoen, eta ez zebilen haizerik.
- Ez omen du gogorik horretaz mintzatzeko.





## GOGOAN IZAN BEHARREKOA

-Partitiboa galde-perpausetan:

- Irakurri duzu gai horren inguruko liburu**rik**?  
(≠ Irakurri dituzu gai horren inguruko liburuak?)
- Badago segurtasun-kamera**rik** eraikin horretan?
- Sumatu duzu aldaketa**rik** lehengo eta oraingo egoeraren artean?
- Egin duzu argazki**rik** oporretan?
- Izango duzu beta**rik** hori guztia egiteko?



## GOGOAN IZAN BEHARREKOA

-Partitiboa baldintzazko perpausetan:

- Seme-alabar**rik izan balute**, haien bizimodua bestelakoa izango zen.
- Akats**ik** edo okerr**ik gertatzen bada**, egileek eta editoreek ez dute legerantzukizunik onartuko.
- Astir**ik izango banu**, testu osoa irakurriko nizuke.
- Hori egiteko beste modur**ik badago**, modu hori erabiliko dut.
- Nagusiak bester**ik esaten badizu**, ez kezkatu, eta jo sindikatura.
- Hemen norbaitek txar**rik egiten badu**, laster ordaintzen du bere errua.



## GOGOAN IZAN BEHARREKOA

### -Partitiboa baiezko perpausetan:<sup>1</sup>

- **Bai**, irakurri dut gai horren inguruko liburur**rik**.  
[≠ Bai, irakurri ditut gai horren inguruko liburuak.]
- Pertsona zintzor**rik** egon **badagoela** sinesteko prest nago.
- Teknika nabarmentzeak **badu**, halaber, beste ondorior**rik**.
- Erakusten dute **badela** erlazio**rik** bikien adinen eta haien arteko desberdintasunaren artean.
- Zientzia-ikerkuntzak **badu** mugar**rik**.
- Kaltzio klinoanfibolek, Fe, Mg eta Ca kantitateen aldaketek eragindako konposizio-aldaketez gain, **badute** beste aldaerar**rik** ere.

<sup>1</sup> Horrelako baiezko perpausetan, galdegaia baietza da: "Ikusi ditut [, bai,] film horiek", "Zuk ez, baina nik badut [, bai,] erantzukizun hori".

Ikus, Euskaltzaindiaren 30. araua: [Partitiboa baiezko perpausetan noiz eta nola.](#)





## PARTITIBOA ZENBAIT EGITURATAN

- -rIK / Ø GABE:
  - Dirur**rik gabe** etorri naiz. (\*Dirur**rik barik** etorri naiz.)
  - Diru**gabe** etorri naiz. (Diru**barik** etorri naiz.)
  
- -rIK / Ø -ENa (superlatiboa):
  - Testur**rik zailena** aukeratu du.
  - Ura husteko sareko hodie**k** ibilbide **sinpleena** izan behar dute.<sup>1</sup>
  
- -rIK / Ø GEHIENa:
  - Jender**rik gehienak** ongi asko estimatzen du matematika.
  - Jende **gehienak** onartzen du egoera hori.
  - Ikasler**rik gehienek** zientziako edo teknologiako graduak aukeratu dituzte.
  - Haur **gehienei** egin diete osasun-azterketa.

<sup>1</sup> Superlatiboan, beste egitura hauek ere erabiltzen dira: "testuetan / testuetatik zailena(h)".



## PARTITIBOA ZENBAIT EGITURATAN

### • -rIK / Ø EZa:

- Askatasuna, definizio baten arabera, hertsadurar**rik eza** da.
- Merkatu nazional**ik ezari** buruzko tesia garatu zuen.
- Proporzionaltasun**ezak** eragiten ditu errore horiek.
- Horrelako hiri-hazkundeak eskualdeen arteko oreka **ezaren** emaitza dira.

### • -rIK / Ø ASKI:

- (...) zentzu on**ik aski** izan zuen benetako matematikari bat hartzeko irakasle.
- Bereziki erabilgarria da entrenatzeko denbora **aski** duten pertsonentzat.

### • -rIK EZEAN:

- Horregatik, izendapen hober**rik ezean** «dokumental» deitzea erabaki dugu.



## PARTITIBOA ETA ERLATIBO-PERPAUSA

-Erlatibo-perpausaren ardatza den izena partitiboan dagoenean, izenaren eskuinera eraman daiteke erlatibo-perpaua, partitiboan jokaturia:

- Ondorio horri jarraikiz, ez da mutanterik aurkitu **AAB-erantzun guztietan akatsa duenik**.
  - Ondorio horri jarraikiz, ez da **AAB-erantzun guztietan akatsa duen mutanterik** aurkitu.

-Beste horrenbeste egin daiteke erlatiboa *inor* edo *ezer* izenordainei dagokienean (baldin eta NOR kasuan badaude).

- Ez dago **inor** matematikari buruz halako hizkera erabiltzeko bezain ergela **denik**.
- Baina hor ez da **ezer** matematikari bat erakartzen duenik.



ESKERRIK ASKO  
zure arretagatik.

(\*eskerrikasko)